

BALEIKE

KEY
**ORITZAPENAK
BESTERIK EZ**





BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Geltoki bidea, 1 · ZARAUTZ · ☎ 943-13 50 16 · www.biyona.net



ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21



BALEIKE 313

2021-URRIA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 4 | Hitz tantak Maria Maya Manterola
<i>Elene Mendizabal</i> | 24 | Bazkidetza |
| 6 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
<i>Apra</i> | 25 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Etterako lanak</i> |
| 8 | Hainbat aburu Aitor Tena Eizagirre
<i>06:52. Esparragosa de la Serena</i> | 26 | Plazan bazan |
| 9 | Errematea Sara Ibarburen
<i>Aske</i> | 34 | Zientzia eta ingurumena
<i>Sumendiak</i> |
| 10 | Elkarrizketa Juan Luis Romatet
<i>Imanol Ulacia</i> | 37 | Orduan bai Imanol Azkue
<i>Udal langileak</i> |
| 15 | Erreportajea Maria Maya Manterola
<i>Xey</i> | 43 | Agenda |
| 20 | Erretratua Juan Luis Romatet
<i>Nerea Alonso, orkestra administratzailea</i> | 44 | Literatura Antton Peñalba
<i>Glaziar bat bihotzean</i> |
| | | 45 | Nire txanda Iosu Manzisidor
<i>Salsamendi</i>
<i>Etxean jokatzeko nuen</i> |
| | | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Ilarak</i> |

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta
Imanol Azkue
Dorleta Agiriano Lai

Jabi Gonzalez Toston

Argazkilaria
Arnaitz Rubio Apra
Diseinu arduraduna
Maria Lopez
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus
Administrazio arduraduna
Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Elene Mendizabal

TESTUA: MARIA MAYA MANTEROLA

ARGAZKIA: UTZITAKOA

TikTok aplikazioko @elemelonsv erabiltzailearen atzean dago Elene Mendizabal zumaiarra.

Euskara hutsez sortzen ditu edukiak, euskaraz bizi den heinean, "ez baitu zentzurik gaztelaniaz egiteak". Norvegian dago orain, eta bertako ibileren berri emateko erabiltzen du, besteak beste, modako aplikazioa.

Zer da TikTok bi hitzetan?

Dantzarekin lotzen da, baina mundu bat dago hor. Janaria interesatzen zaizula? Errezetak topatuko dituzu. Umorea, marrazkilaritza... dena. Azkarra eta dinamikoa da.

Eta mundu horietatik, zeintzuk ditu gustuko Elenek?

Umorezko bideoak, batik bat. Janariarenak ere ikusten ditut azkenaldian. Erasmus beka bati esker Norvegian nago, eta nire janaria prestatzeko errezetak bilatzeko erabiltzen dut aplikazioa.

Zuk zer eduki sortzen duzu?

Askotarikoak. Euskarazko telesaioen inguruko saioak egin izan ditut, esaterako: ETB1eko *Goazen* eta *Baserria* programen inguruan. Umorezkoak ere bai. Jendea identifikatuta sentitzen da eta iruzkinak uzten dizkit. Orain, Norvegian nagoenez, hemen bizitakoak kontatzeko erabiltzen dut.

Nola hasi zinen?

Vine aplikazioan izena eman nuen lehenbizi. Konfinamenduan nire kuadrillako batek egin zuen TikTok, eta bere bideoak ikusteko animatu nintzen ni ere, egin eta mundu hori arakatzera. Vine gogorarazten zidan. Gero, ni hasi nintzen bideoak igotzen.

Zer du ezberdina gainerako sare sozialekin alderatuta?

Ez da inoiz bukatzen edukia. Oso dinamikoa da, eta asko erakartzen nau.

Zer perfiletako jendeak dauka TikTok?

Aitona-amonak ikusi ditut, helduak seme-alabekin bideoak igotzen... Badirudi haurrek koreografiak egiten dituzten aplikazio bat dela, baina niri ez zait inoiz halako bideorik ateratu. Nire jarraitzaile gehienak oso gazteak dira, hala ere.

Zein dira erreferenteak zuretzat?

Julen Portillo zarauztarra asko gustatzen zait. Edukia gaztelaniaz sortzen duten kontuak ere jarraitzen ditut: Esperansa Grasian eta Iker Unzu, esaterako.

Twitter ere erabiltzen duzu. Uste duzu belaunaldi berriekekin sareak erabiltzeko modua aldatu egin dela?

Nik Twitter erabiltzen dut trending topic zerrendak ikusteko, batetik; baina gertatzen zaizkidan gauzen inguruan idazten dut, eta nik jarraitzen dudana jendeak ere bai. Uste dut norberak bere iritzia emateko leku bat dela, eta ez hainbeste albisteen berri jakitekoa. Hala ere, egia da sareetan informazioa azkar partekatzen dela, eta lehenago iristen zaizkigula berriak bide horietatik telebistatik baino, adibidez.

Gazteek kalean elkartzeko eta sozializatzeke zailtasunak izan dituzte azken hilabeteotan. Sareetan bilatu dute topatzeko lekua?

Sare sozialengatik ez balitz, asper-asper eginda egongo ginateke konfinamendu garaian. Ezin dut sare sozialik gabeko gizarterik irudikatu, egia esan.

Euskaraz sortzen duzu edukia. Hautua izan da?

Nik garai batean kontsumitzen nuen eduki ia guztia gaztelaniazkoa zen TikTok. Behin euskaraz egindako bideo bat igo nuen, eta espero ez nuen arrakasta izan zuen. Orduan konturatu nintzen euskalduna naizenaz geroztik euskaraz kontsumitzea gustatzen zaidala, eta gainerako euskaldunei ere bai. Ordutik euskaraz egiten dut. Euskaraz bizi naiz, eta ez du zentzurik gaztelaniaz egiteak. Jendea gauza bera egitera animatu nahiko nuke. ■■■



Nerys Maria Sanchez Andrades

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

San Francisco del Norten jaio nintzen 1988an; Nikaraguako herri txiki bat da. 2010. urtean heldu nintzen Euskal Herrira; lehenbizi Zarautzen bizi izan nintzen, eta azken bi urte hauek Zumaian egin ditut. Nikaraguan ez dago lanerako aukera handirik; nire ahizpak hemen, Euskal Herrian, bizi ziren eta beraiek esanda etorri nintzen. Hemen lan bat zain nuelako egin nuen bidaia; hona etorri eta hurrengo egunean lanean nintzen jada, Getariako negutegi batean. Zumaiara bikotearekin etorri nintzen, hemen ezagutu nuen mutil batekin, familia eratzeko asmoarekin. Ume txiki bat dugu elkarrekin.

Jaioterritik kanpo egona nintzen hona etorri aurretik; Costa Rican hiru urtez egin nuen lan, baina nire familiak bazekien etxera itzuliko nintzela. Euskal Herrirako bidaia egin nuenean penarekin hartu zuten, beti bidaiatzen ikusten nindutelako, ez nintzelako han bertan

egonkortzen. Hamabi anai-arreba gara, eta zortzi geratzen dira han. Besteok asko mugitu gara; han geratu direnak etxekoiagoak dira eta finkan geratu dira lurra lantzen. Ez dira bidaiatzera atrebitzen.

Asko gara familian. Gure aitak izan zituen bikote guztien seme-alabak batuta 76 anai-arreba gara. Aitaren azken bikotea izan zen gure ama, eta ham-bi anai-arreba gara etxean. Gure aita 75 urterekin hil zen, nik 15 urte nituela. Anai-arreba guztiok ondo konpontzen gara. Aita hil zenean, hiletan, 50 edo ezagutuko nituen. Denetik dago gure artean: abokatuak, medikuak, farmazeutikoak... Kazetariak daude, beterinarioak... Denak ere heziketa aldetik ondo prestatutakoak, gu izan ezik. Azkenak izan gara; hil zenean Bigarren Hezkuntzan nengoen, eta utzi egin behar izan nuen etxean laguntzeko. Aita hil izan ez balitz, ez dut uste mugituko nintzenik.

Jaioterrira itzultzeko ilusioa badut. Ume bat dut, eta beste bat dator bidean. Lursail bat ere erosi dut han, Nikaraguan. Baina familia hemen dut; mutila hemengoa da, umeak ere hemen jaio dira. Familia hemen osatzeko aukera gehiago daude han baino. ■■■





06:52. Esparragosa de la Serena

Jada autobuseko maletategian gorde dut ekipajea eta gidariak nire eserlekura eraman nau. Leihatilatik nire aita ikusten dut autobus geltokiko markesina alboan agur keinuak egiten, negar malkoei eutsi ezinik, egun gutxi barru etxean berriz elkartuko garen arren. Nire adina zuela, 22 urterekin, horretaz jakitun izan gabe, itzulerarik gabeko bidaiari ekin zion Zumaiara, hamarkada batzuk lehenago bere hainbat senidek egin zuten gisara. Garai hartan, gaur egun kontzertuen kartelak jartzeko soilik erabiltzen den parada honetatik autobusak etengabe igarotzen ziren. “Itsasorantza zetozen ibai amaigabeak” ziren, “olibondorik gabeko nortegia baterantza iparririk gabe zetozenak”, Hezurbeltzak taldeak dioen moduan.

Urte horietan zehar Euskal Herriko autobusak hutsik bidaltzen zituzten Extremadurara, lan indar merkearen bila. Bizi zen miseria egoeraren aurrean, jende askok hazten ikusi zituen lurra atzean uzteko erabakia hartu behar izan zuen. Landa ingurua hiri handiagatik aldatu zuten, eta zonalde industrializatuera emigratu zuten. Familia askok euren aurrezkien zati handi bat xahutu zuten beraiei bizitoki berrira eramango zituen autobus txartela erosten, "maite

**EZIN DEZAKEGU
AHAZTU ZELAKO
GOGORRA DEN
SORTERRIA ATZEAN
UZTEA**

zutena utzita lurralde arrotz honetara esku hutsik" heldu zirelarik. Hasieran, hiru egun igarotzen zituzten lineako autobusetan. Baina urte batzuk geroago, zenbait enpresa zerbitzu bereziak eskaintzen hasi ziren, eta bidaiaren iraupena 24 ordura igaro zen. Eskaria etengabe handitzen zihoan, eta horren emaitza izan zen zerbitzua eskaintzen zuen enpresa bakarra egotetik une batean hiru izatera igaro izana, eta billetearen prezioa modu nabarian merkatu zen, lehia bortitzaren eraginez. Gainera, urteak aurrera egin ahala, bidaiak alderantzizko noranzkoan ere eskaintzen hasi ziren, Nortetik familia bisitatzen itzultzen zirenentzat. Astean sei egunetan ateratzen ziren autobusak, joan-etorrian.

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



SARA IBARGUREN

Aske

Ostadarraren koloreak dituen poltsa bat eramateagatik mehatxatu zuten neskatoa, mugikorrean kolore horiekin osatutako bandera bat zeraman berri bat irakurtzeagatik autobusean irainak entzun behar izan zituen, taberna batean lanean ari zela lesbiana ote zen galdetu zioten zerbitzaria, jendaurrea elkarrizketa emateagatik eraso zuten bikotea, transexuala izateagatik ukabilkadak jaso zituen gaztea edo “marika oihukatuz hiltzeraino jipoitu zuten mutila.

LGTBI kolektiboak gaurdaino disfrutatu dituen eraso batzuen adibideak dira, baina azkenaldian eraso homofobo eta transfoboak buruzko albisteak gero eta ugariagoak dira. Eta kontuan hartzekoak dira salatzen ez diren kasu guztiak ere.

Gorrito istiluen txostenaren arabera, biktimen sexu orientazioari lotutako gorrito delituak hirukoiztu egin dira Euskadin azken urtean. Aski da.

Erasotzaileei mezu bat: utzi bakoitzari lasai bizitzen, aske izaten. Ez al duzue beste kezkarik buruan?

Zuek zarete aske bizi ez direnak.

Pentsatu bi aldiz, horretarako gaitasuna baduzue, behintzat. ■

Ohartzen naiz zenbait belaunaldi elkartzeko dituen fenomenoak dela honako hau, immigrazioak eragindakoa. Eta gogora datozkit aita gaztetxoaren zenean, *Pueblotik* irten eta Zumaiara oporretan joatearen zirrarak eraginda, lo egin ezinda autobusaren aurrealdean txoferrarekin hitz egiten igarotzen zituen gauak; gogoratzen naiz ezagutzeko aukera izan ez nuen nire aitona Felix *Casinoko aldapan* autobusaren sabaian igota maleta guztiak jaisten aritzen zela kontatzen zidala amama Juliak; ezin ahaztu, nola, nire osaba Emiliok autobusean Zumaiara erositako motorra eta sukaldeko altzariak eramane zitueneko kontakizunak. Eta ziur naiz horiek 60 urtean bizi izandako

istorioen zati txiki bat besterik izango ez direla...

12 orduko bidaiaren ostean, iritsi gara Zumaiara. Ohitura zaharrei jarraiki, txoferrak etxe aurrean utzi nau. Baina ez da mantentzen den ohitura bakarra, besteak beste, familia guztiarentzat enbutidua eta olioia ekartzea edo ordura arte ezezagunak ziren bidaiariekin elkarrizketa amaigabeak izatea aipa genitzake. Hala ere, ezin dugu emigrazioaren edo horren adierazpenen erromantizazioan erori, ‘elkartasunaren’ adibide edota gaur egungo proletarizazioa justifikatzeko argumentu moduan erabiliz, ‘eta inor ez zen kezkatzen!’ bezalako esaldien bitartez. Hau da, ezin dezakegu ahaztu zelako gogorra den sorterrira atzean uztea “bizitza berri baterantz”. ■

FAST FOOD-AREN INBASIO IRAUNKORRA AURKITZEN DUZUNEKOA



"Niretzat poesia egoera mental bat da, ez da inspirazio kontu bat"

IMANOL ULACIA POETA

Psikologian doktorea da Imanol Ulacia, eta Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian duen fakultatean egiten du lan, Gizarte Psikologia sailean. Poeta ere bada Ulacia, eta azken urteotan bi poema bilduma atera ditu irabazitako lehiaketei esker.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Txikitatik landu izan du poesia Imanol Ulaciak (Zumaia, 1974), baina poema horiek erakutsi baino, beretzat gorde izan ditu urte hauetan guztietan. Orain gutxira arte. Orain lau urte, 2017. urtean, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak antolatutako Ernestina de Champoucin 28. poesia lehiaketa irabazi zuen Ulaciak aurkeztutako poema bildumak. Horren emaitza da 2018. urtean ateratako *Bar Kabi* liburua. Aurten, berriz, Torrelavegan (Kantabria, Espainia) antolatzen duten Jose Luis Hidalgo XXI. poesia lehiaketa irabazi du zumaiarrak. Ekainean aurkeztu zuen *Rocas de Itzurun* liburua argitaratu zioten sari moduan.

Poesiaz hitz egiteko hitzordua jarri dugu, non eta bere lehen liburuaren izenburua daraman Kabi tabernan. Non bestela...

Psikologian doktorea zara. Psikologian aditua izateak lagundu al dizu poesia idazteko orduan?

Ez bereziki. Izan zaitezke tabernari, Iribarren bezala; izan zaitezke nagi bat, Rilke bezala; izan zaitezke bohemio bat, Rimbaud bezala. Azken finean, bizitzako esperientziek elikatzen dute begirada. Ikasten emandako urteek gauzak begiratzeko moduan badute eragina, baina

psikologo izateak bereziki ez. Poeten lanbideak ikusten badituzu, ez dago homogeneitaterik.

Pentsa daiteke zientziekin lotutako ikasketek edo lanbideek artearekin edo poesiarekin zerikusi txikiagoa dutela.

Horrek zerikusi gehiago du ezagutza izan den banaketarekin. Antzeko blokeak ezarri dira, eta hezkuntza sistemak hori elikatu du. Ni ez nago horren alde. Gauzak kategorizatze moduak ematen dizkigute txikitatik, eta pentsatzeko era hori ere horren barruan dago.

Noiz eta nola hasi zinen poesiaren munduan?

Txiki-txikitan hasi nintzen; ez dakit zenbat urte izango nituen. Amaren etxean, atzealdeko terrazak soro batera ematen du, eta han zuhaitz handi bat dago. Orain pixka bat zahartuta dago, baina gaztea nintzenean, oparago zegoen. Gogoan dut txikitan zuhaitzari begira egoten nintzela; euria egiten zuenean, edo ekaitza zegoenean, eta hor zerbait nabaritzen nuen. Hor idatzi nuen lehen poema. Hamabi urte izango nituen? Hamahiru? Hamalau? Ez dakit. Baina norberaren kontzientzia sakonagoa dudanetik, beste era batera pentsatu edo begiratu izan dut.

Zerk erakartzen zaitu poesiatik?

Ez da nik erabakitako zerbait. Ni ez naiz idazle ona; buruak edo gorputzak ez dit nobela edo liburu bat



idaztea eskatzen. Zergatik poesia? Bada, ez dakit, baina dei hori sentitzen nuen. Erromantikoa izan daiteke, baina esan nezake poesiak ni aukeratu ninduela nik poesia baino. Urteak egon naiz poesia idatzi gabe, baina begirada poetikoa hor geratu zait; nahiz eta ez idatzi, poesiaren itxaropenarekin bizi naiz, [Antonio] Gamonedak zioen bezala, “bizitza bizitzeko oso modu bizia” dena. Inporta zaidana hurrengo poema da; hori da nire ardura, ez dakit eta inoiz ahal izango dudana beste poema bat idatzi. Poemaren bat idatzi izanak ez du esan nahi gehiago egiteko gai

izango zarenik. Hori da Bukowskik zioena: “inporta duen gauza bakarra hurrengo poema da”.

Lehen liburua atera zenuenean, 2018an, elkarrizketatu nahi izan zintudan, eta ezetz esan zenidan; egindako poemen gaineko ardurarik ez zenuela esan zenidan orduan.

Arduratzen nauen gauza bakarra hurrengo poema da; aurretik egindakoa ez zait interesatzen. Beno, poemak publiko egiteak ere arduratzen nau: poemak niretzat egiten ditut, baina baita besteak pixka bat kontsolatzeko ere.

Horretarako, munduratu behar dira, eta hori ere garrantzitsua da. Ni horretan ez naiz ona, ez zait gustatzen eta ez dut [egin] nahi. Poemek beraiek borrokatu behar dute, agian bultzada txiki bat emanda. Funtzionatzen badute, ondo; baina bultzada eman diozulako bakarrik funtzionatu behar badute, bada ez dezatela funtzionatu.

Denbora gutxian bi bilduma atera dituzu. Txikitatik egindako poema guztiak bildu al dituzu?

Ez, besteak gordeta ditut. Hala ere, ez dira hainbeste; atera behar nituenak atera ditut, Egunen batean, agian, aterako ditut besteak, baina ez dut uste hor galdutako ezer zoragarririk dagoenik. Asko ere ez dut idatzi, egia esan.

Azken urte hauetan poesia lehiaketa batzuetara aurkeztu zara, baita horietako batzuk irabazi ere. Zerk eraman zintuen aurkeztera?

40 urte beteta, konbentzimendua izan nuen banuela [lehiaketetara aurkezteko moduko] materiala. Atzera begiratze hori, poemak berraztertze hori, ez zait batere gustatzen. Batere ez, eta lan asko eman dit. Baina jarri nintzen halako batean; hain gutxi gustatzen zaidan lan hori egin nuen; konjuntu moduan ikusi nituen, eta pentsatu nuen bazegoela zerbait.

Beraz, esan daiteke zure gogoen aurka ere egin duzula prozesu honetan.

Bai, bai. Niregatik balitz, hurrengo poema idaztea izango litzateke ardura bakarra. Bilduma bat egiten ari naizen momentuan ez nago poemaren itxaropenarekin. Baina egia da egin beharreko lan bat dela. Poesia munduarentzat egiten duzu; gero munduak eskertuko dizu, onartu, argitaratu edo saritu; edo ez. Pozik nago sariekin, baina ez da asko inporta zaidan zerbait. Poesia lau katuk irakurtzen dute, baina norbait nire lana irakurrita hobeto sentitzen bada, hori izango da saria. Zure barrenean duzuna ematen duzunean, bestea ere aurkitzen duzu, eta beste horrek irakurtzen duenean, berak idatzi duela sentituko du. Horixe gertatzen zait niri gustukoak ditudan gauzak irakurtzen ditudanean.

Poemak idazteko prozesu bat duzu? Inspirazioa iritsi zain egoten zara?

Niretzat poesia egoera mental bat da, ez da inspirazio kontu bat; mundua zure erara egituratzea ahalbidetzen dizun zerbait da. Fisikoa ere bai, sentsazio fisikoak ere izaten ditudalako. Gauza askorekin bezala da: lau orduz liburu bat irakurtzen bazaude, agian hurrengo egunean ez duzu irakurtzeko gogorik izango;

saturatua egongo zara. Janariarekin berdin.

Denbora batean idatzi gabe banago, edo modu horretan pentsatu gabe, poesiaren moduan egongo naiz. Baina, bi egunez jarraian idazten badut, nazkatu egingo naiz. Irudikatzeko, buruan dudan bateria txiki bat bezala da, eta kargatzen eta deskargatzen doa. Dituzun esperientziekin, formakuntzarekin, bizitzarekin... bateria hori betetzen doa, eta aterako den poema horren arabera izango da. Nire kasuan, bateria kargatutakoan nire egoera mentala piztu egiten da; eta berdin dio non nagoen, etxean, Kabin bertan, zerbait aterako da, baina ez dakit zer. Egoera mental horretan ez banago, poeta bat izatetik oso urrun egongo naiz; poeta baten antipodetan egongo naiz, milioika argi urtetara. Hala egoten naiz egun askotan. Angel Gonzalezek zioen ez zekiela zer zen poeta izatea, bera bizitzako une txiki batean bakarrik zela poeta, eta ez zuela jakingo deskribatzen.

Rimbaud edo Baudelaire bezalako poetak miresten dituzu. Zure lanean ba al dute eraginik?

Bai, zalantzarik gabe. Berezik haluzinatu naute beraien pentsatzeko erak, eta horrek markatu nau. Baina baita beste gauza askok ere: itsasoa hain gertu izateak, ezagutu dudan jendeak, bizitzak... Gustuko idazleak horren parte dira, Rimbaud bereziki. Baina horiei jartzea korronte nagusi bezala... Bizitzak jartzen zaitu poemaren bidean. Funtsezko bidea ez dut uste ahots horiek direnik, nahiz eta horren parte izan.

'Bar Kabi' eta 'Rocas de Itzurun' dira zure liburuen izenburuak, biak ere oso izenburu lokalak. Zure poemetan lokalismo hori landu nahi izan duzu, edo gai unibertsalagoak jorratzen dituzu?

Izenburua funtsezkoa da, hori da liburuaren bihotza. Poemak egiten ditut, ez liburuak, baina behin liburu bat egiten duzunean horren izenburua oinarritzkoa da. *Bar Kabi* jarri nion lehenengoari hemen egin nituelako liburuako poema asko; hemendik atera ziren eta hemengo gauza asko jasotzen dira poema horietan. Ez nuen zalantza handirik izan; ez nuen asko pentsatu, izenburua bera etorri egiten delako. Liburua irakurrita izenburua deduzitzen da. *Rocas de Itzurun*, berriz... ni han hazi naiz, amarekin, anaiekin. Ikusten nuen hain ederra zela lekua, hain polita toki hori, harritu egiten ninduen herriko inork ez jasotzea edertasun hori poema batean. Saiakera hori egin behar nuen. Gero, ezin da lokalean geratu; denarekin elkarlotu behar da.



Imanol Ulacia Itzurunen.

"NIREGATIK BALITZ, HURRENGO POEMA IDAZTEA IZANGO LITZATEKE ARDURA BAKARRA"

"POEMA LORTU DUZUNEAN, HORREK EMATEN DIZUN POZAK EZ DU PAREKORIK"

Euskalduna zara, euskaraz ari gara, baina gaztelaniaz idazten duzu. Ez duzu euskaraz idazteko gogorik edo asmorik?

Inoiz ez dakit hurrengo poema idazterik lortuko dudana. Bateria kargatuta izan dezakezu, eta lortuko duzula pentsatu, baina ziurtasuna ez duzu inoiz. Poema egiterakoan duzun guztiarekin joan behar duzu. Ez hori bakarrik: duzun onenarekin joan behar duzu, eta nire onena, poema baten aurrean, gaztelaniaz emango dut. Batzuetan lortuko dut, eta besteetan ez. Euskaraz egingo banu, ez dut uste lortuko nukeenik. Hari fin baten gainean zaude, eta

barregarri gera zaitezke; erritmorik edota konexiorik gabeko hitzak izan daitezke. Edo guztia izan dezakete. Oso sinplea dirudi, eta batzuetan hala da, baina nahasketa oso konplexua da. Picassori galdetu zioten behin ea zenbat denbora behar izan zuen koadro bat margotzeko. "Bizitza osoa", erantzun zuen.

Nola sentitzen zara poema bat bukatzen duzunean?

Bukatzean, poema lortu duzunean, horrek ematen dizun pozak, lortzen duzun satisfakzioak, ez du parekorik. Nire kasuan oso ondo sentitzen naiz, eta ez ditut poemak errepasatzen. [Joan] Margaritek zioen behin eta berriz zuzentzen zituela poemak. Nik ez ditut poemak ia inoiz zuzentzen. Egoera mental horretatik ateratzean alferrik da poemak ukitzea; hitz hutsalak bihurtuko lirateke. Ez ditut berridazten, baina segituan ohartzen naiz zerbait lortu dudana edo ez. Egoera horretatik aterata zerbait aldatuko banu literatura izango litzateke, eta ez poesia. Idatzi eta hurrengo egunean, bai, buruan dut bueltaka. Egon naiteke hemen zurekin, eta poema izango dut buruan, maniako bat izango banitz bezala: "funtzionatzen du, ez du funtzionatzen". Behin eta berriz errepikatuko dut. Agian zerbait aldatuko dut, bai, hitz bat, zerbait, baina inola ere ez poemaren estruktura, egoera horretan ez naizelako egongo.

16 urterekin poema batzuk idatzi nituenean nik banekien denborarekin borroka egiteko prest zeudela. Horretarako egiten ditut poemak, besteak kontsolatzeko denboran zehar. Baina horretarako denborari eutsi behar diote. Laburrak, trinkoak eta musikalak izan behar dute. Denborari eusten dioten jakiteko, Margaritek dio bi belaunaldi pasa behar direla. Ikusiko dugu hemendik bi belaunalditara nor gogoratzen den nitaz. Baina nik garbi daukat poesia denborari eusteko egiten dela, bestea kontsolatzeko; ez denbora honetan, denbora guztietan, baizik.

Aurreko batean esan zenidan poesia ez zela literatura, eta musikatik hurbilago dagoela.

Literatura irakurri egiten da; irakurleak irakurri egiten du. Izan daiteke entsegu bat, idatzi konplexuagoa, gehiago eskatzen dizuna. Baina poema bat irakurtzen duzunean poesia zeuk egiten duzu. Poesia ondo, modu ulargarrian irakurtzeak ahalegin handia eskatzen dizu. Horregatik izan ditzake hain irakurle gutxi.

Bizi dugun egunerokotasun honek ematen al du poesiarako aukera?

Baudelaire-ekin bukatzeko, "ogirik gabe bi egun bizi zaitezke; poesiarik gabe ezin zaitezke bizi". ■■■

PUBLIZITATEA

7 MARES

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izoztuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09

a3 diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52

Aita Mari
JATETXEA ZUMAIA

679 10 31 67

Juan de Zigarán, 1
Zumaia

@aitamarijatekx@gmail.com

AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarte

Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61

Amama
taberna

tel. 943-57 46 51
amamataverna@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe - Hariz Klinika

Ardantzabide, 3 behea • Zumaia

943-54 35 70 • 688 73 38 56

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31

ARDANTZABIDE
TABERNA

Ardantzabide, 12
943-57 22 47

OKINDEGIA
Arkupe

Nausti, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-xopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autoszumaia@bosch-bcs.com

Tel. 943-86 14 85

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21

Kantauri 2, behea

aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

bai bidea

Taberna • Jatetxea
Bar • Restaurante

943-86 02 75
697 81 24 92

batzokizumaia@gmail.com

Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)

Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskainet.net

Basadi albaitaritza

Albaitaria Inaki Garmendia

Basadi, 7, behea • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadidivinet.com
www.basadidivinet.com

Goloz: 11-13 / Armatulok: 16-19:30 / Askelehen golozen eta tartar baitan 18:30

Lanaldietarako: 605 72 87 07 Eltxez etxeko zerbitzua



Xey enpresaren hondarretatik

Ur putzuak, botak, kobratu gabeko fakturak, langileen arropak... Lau urte baino ez dira igaro Xey enpresaren Oikiako pabiloia itxi zutenetik, baina ikusgarria da denbora gutxian nola aldatu den haren itxura.

Testua: **Maria Maya Manterola.** Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea.**

Berrogeita hamasei urteko ibilbide gorabeheratsua izan zuen Xeyk. Urterik onenetan sukaldeko altzarien enpresa indartsuenen artean egon zen estatu mailan, eta 300 langileko plantilla izatera iritsi. Edonola ere, ez zen gai izan jabeen eskualdatzeen eta krisien gorabeherak gainditzeko, eta 2017an itxi zuten.

Donostiako Ergobia auzoan sortu zen enpresa, 1961ean. Sei bazkidek sortu zuten enpresa eta hortik dator Xey izena, Pedro Etxabe Zumaiaiko Industria-ondarearen Informazio Zentroko (ZIIZ) kidearen esanetan. Hasieran, metalezko altzariak egiten zituzten, sukalderako mahaiak eta aulkiak, alegia. Hamarkada bat geroago erosi zituzten lurrak Oikian: 1971ko uztailean aurkeztu zioten proiektua Zumaiaiko Udalari, eta erantzuna jaso aurretik, abenduan, sute bat izan zen Ergobiako eraikinean. Horrek azkartu egin zuen, hein batean, Zumaiaiko plantaren eraikuntza, gertaera hartatik

astebetera eman baitzien Udalak eraikitzen hasteko baimena. Bi urteko epean 18.000 metro karratuko pabiloia eraiki eta enpresa martxan jarri zuten.

Sukaldeko altzarien merkatuan berehala egin zuen bere lekua Xeyk. 1975erako sukalde integral modulatuak ere hasi zen eskaintzen bere katalogoan. Merkatuan zuen harrera onaren jakitun, hurrengo urtean handiagotu egin zuten Zumaiako planta: 37.000 metro karratu gehitu zitzaizkion.

Eskutik eskura

Xeyren historian enpresak izan dituen jabego aldaketak nabarmentzekoak dira. 1977an Banco Urquijok hartu zituen akziorik gehienak, eta enpresa sozietate anonimo gisa erregistratu zuen. Gutxi ezaguna den pasadizo bat gertatu zen 70eko hamarkadan. Izan ere, AEBetako merkatuan sartzeko ahalegin berezia egin zuen Xeyk, bertan fabrika berri bat eraikita. Xeyrenak ziren akzioen erdiak, eta AEBetako enpresa batzuenak beste erdiak. Handik bi urtera saiakera hura bertan behera geratu zen, ez zirelako gauza izan beraien produktua AEBetako baldintzetara egokitzeke. 1986ra arte izan zen Banco Urquijo Xeyren jabe, urte horretan saldu baitzituen bere akzioak; enpresako zuzendaritzak hartu zituen erdiak. Hiru urtera, gainera, burtsan sartu zen, eta kapitala handitu zuen 80ko hamarkadaren amaieran.

Krisien gorabeherak

1993ko krisiak gogor kolpatu zuen Xey ere, eta orduan egin zizkieten lehenengoz langileei aldi baterako erregulazio txostenak. Hiru urte lehenago, gainera, Urnietan zegoen Manufacturas Aliaga enpresa erosi zuen Xeyk. Dena den, krisi horri buelta ematea lortu zuten, eta merkatuan bere lekua egiteko estrategia berriak abian jarri zituzten.

Horien artean da hiru marka komertzializatzearena. Xey zen gama altuko produktuena, Vegasa erdi mailakoa, eta Forma behekoa. Horrela lortu zuten 1997an irabaziak izatea. 300 langile zituzten orduan. Urte bat geroago beste enpresa bat erosteko ahalmena ere izan zuen, komuneko baldosak egiten zituen Azpeitiko Grumal, hain zuzen ere.

Jabegoan beste aldaketa handi bat gertatu zen 1999an. Masco Corporation izeneko enpresa amerikar batek erosi zuen osorik, eta sei urtez izan zen haren jabea. Saldu zutenean, zatiketa gertatu zen: arrisku kapitaleko enpresa batzuk sartu ziren tartean, eta Fagorrek erosi zuen Grumal, azkenean. Hurrengo hiru urteak onak izan ziren Xeyrentzat. Ez luzerako, ordea.

Higiezinek hondoa jo zuten krisi latza etorri zen 2008an; ordurako, Xeyk 60 milioi fakturatzen zituen, baina erdira jaitsi zen kopuru hori bost urtean. Hori izan zen Xeyren gainbeheraren hasiera. Ahaleginak egin zituzten arren, 2017an hartzekodunen ehiaketara irten zen, likidazioan sartu zen, eta itxi egin zuten.

Garrantzi handiko enpresa izan zen estatu mailan sukaldeko altzarien enpresen artean, punta-puntakoa. Pedro Etxabe ZIIZeko koordinatzailearen hitzetan, jabegoan aldaketa asko egon izanak ekarri zion desegonkortasuna enpresari. Urteotan dokumentazio

ugari jaso du ZIIZek, eta hari esker jakin dezakegu gaur egungo zumaiaerok Xey zer izan zen. Gaur egun, urte haien arrastoak besterik ez dira geratzen Oikiako planta zegoen lekuan. ■■■





1979eko ABUZTUA

Oikiako planta, 1979ko udan.

**"TAILER ONA ZEN,
LANA ONDO EGITEN
ZEN, ERREMINTZA
ONAK. GAUZA ONAK
EKARTZEN ZITUZTEN"**

**"ARANTZA BAT GERATU
ZAIGU, IKUSTEN
GENUELAKO LANA
BAZEGOELA, ENPRESA
BIDERAGARRIA ZELA"**

“Pena”

“Pena” da Xeyko langile ohiekin hitz eginda behin eta berriz ateratzen den hitza. Pena, samina, beraien ustetan enpresak etorkizuna bazuelako; pena, tristura, Oikiako plantaren gaur egungo egoera ikusita. Enpresa 2017an itxi zuten, eta lau urte geroago, faktoriaren oroi-tzapenak besterik ez dira geratuko.

Luis Mari Goikoetxea Goiko (Zumaia, 1949) 1975. urtean hasi zen Xeyn lanean. “Ostolazan

hamar urte egin nituen lan, soldaduskaren aurretik eta ondoren. Gero, gure kontura hasi ginen lanean Banderas [Joxe Mari Odriozola] defuntuarekin; obretan-eta hasi ginen gure kontura, lana bazegoen orduan. Xeyra joateko aukera sortu zen, hitz egin genuen, eta balekoa. Harrezkero han aritu nintzen lanean, 31 urte inguru, jubilatatu nintzen arte”. Goikoetxearen esanetan, “tailer ona zen, lana ondo egiten zen. Makina onak zituzten, erreminta onak, gauza onak ekartzen zituzten”.

Arotza lanbidez, prototipoak egiten aritzen zen Goikoetxea. “Zarauztar batek egiten zuen lan hori, eta jubilatatu zenean, niri deitu zidaten. Planoak hartu eta haien arabera egiten nituen prototipoak: armario bat honela egin behar zen, ate bat hala... Ikusten zutenean ondo zegoela, makinetara eraman eta hala ateratzen zituzten altzariak-eta”.

1980ko hamarkadaren hasieran, AEBko merkatuan sartzeko ahalegina egin zuen Xeyk, eta maletak egin eta bertara joan zen Goiko lanera. “1981. urtea zen, eta hara eraman gintuzten produkzioa pixka bat igotzeko. Baina hango jendea motela zen, lasaia gurekin alderatuta. Ezin izan genuen ezer lortu. Rhode Island estatuan zen [AEBtako ipar-ekialdean], eta hango gobernadorea ere saiatu zen zerbait bideratzen. Urte hartako Gabonetan bueltatu ginen, eta gero jakin genuen planta itxi egin zutela. Horren ondoren, bi urtez egon ginen jornala igo gabe enpresa aurrera ateratzeko. Eta atera zen, baina gero ez dakit zer gertatu zen”.

Osasun arazoak zituela medio erretiratu zen Goikoetxea, 2006. urtean. “Zerbikaletako arazoak nituen, sorbaldatik ere operatu ninduten, behatzetan ere arazo batzuk nituen, eta azkenean inutilidadea lortu eta hala erretiratu nintzen”. Lana utzi bai, baina gerora, noizean behin, Oikiako plantara joaten zela dio, “lagunen batek laguntza behar zuelako. Azkeneko aldiz joan nintzenean, seme gaztea eramatera, ingeniari batekin hitz egin nuen, eta egoerari itxura txarra hartu nion. Hark bazekien zerbait, eta horrek asaldatu ninduen”.

Goikoetxeari ulergaitza egiten zaio Xeyk izandako gainbehera eta ez du baztertzen kudeatzailerek nahita itxia. “Lana bazegoen, eta lana lortzen ere oso onak ziren. Mundu guztian egiten genuen lan garai

hartan. Lana ekartzen zuten, lan asko; lana beti egon da han. Pena da halako enpresa bat egun batetik bestera ixtea, ikusita, gainera, nola funtzionatu duen, ondo funtzionatu du-eta. Orain autopistatik pasa eta ikusten dudanean nola dagoen enpresa, pena handia ematen dit. Pena. Baina guk hor ezin dugu ezer egin, eta...”.

Mikel Etxabe (Zumaia, 1982) oraindik ere hunkitu egiten da Xey enpresaz hitz egiten duenean. Bi garaitan egin zuen lan Oikiako plantan, eta une onak eta txarrak bizi izan zituen, enpresaren itxiera bera barne. “Oso gogorra izan zen. Orain hobeto nago, baina gure etxean ondo gogoan dute nola pasatu nuen garai hura”.

Higiezinen burbuila puri-purian zegoenean hasi zen Etxabe lanean Xeyn. “Lanbide Heziketa amaituta, hamazazpi urterekin, Ostolaza aroztegian hasi nintzen lanean, eta han izan nuen Xeyrekin lehen kontaktua: azpikontratatuta egiten genuen lan. Gero, enpresan lan egiteko deitu ninduten”. Etxebizitzak bata bestearen atzetik egiten zituzten garaia zen, eta haiek altzariakin hornitu behar ziren. Berekin batera langile asko sartu zirela du gogoan. “Plantillakoak eta aldi baterako lanerako enpresetako (ABLE) jendea batuta, 340 langile izatera helduko ginen”. Astero milatik gora altzari ateratzen zirela dio. Baina 2008ko krisialdia etorri zen, eta horrek kolokan jarri zuen enpresaren etorkizuna. “Aldi baterako kontratua nuen nik. Lehenbizi ABLEetako jendea kaleratu zuten, eta atzetik joan ginen aldi baterako kontratuak genituenak”.

Xeyko lehen etapa amaituta, Azpeitian hasi zen Etxabe lanean. “Bederatzi bat urte egingo nituen han, Azpeitian. Nik Xeyn ondo bukatu nuen, harremana mantentzen nuen, eta halako batean deitu zidaten jakiteko zein zen nire egoera. Ez nengoen gustura Azpeitian, erreta nengoen, eta Xeyko arduradunekin hitz eginda, esan zidaten berehala hasteko jendea behar zutela. Hala bueltatu nintzen”.

Krisiaren okerrera pasatuta, enpresa lehengo egoerara bueltatzen ari zela dio. “Fakturazioa igotzen ari zen, eta lana ere bagenuen. Ordu estrak ere sartu behar izan genituen, ez ginelako denera heltzen. Ez ziren, lehen bezala, serieko altzariak egiten; gama altuko altzariak egiten genituen, dirua uzten zutenak”. Garai horretan finko egin zuten enpresan.

2017ko otsailean hasi zen amesgaiztoa. “Ez dut inoiz ahaztuko. Arratsalde batean Juan Fano [Xeyko orduko administratzailea] jaitsi zen eta hasi zitzaigun esaten fakturazioa ‘zenbaki magikoetara’ igoko zela. Hori otsailean izan zen; martxoan ez genuen nomina kobratu, apirilean ere ez. Maiatzean martxokoa kobratu genuen, baina ez maiatzekoa. Lana bazegoela ikusi genuen, eta enpresara joaten jarraitu genuen”. Guztira sei hilabete kobratu gabe geratu zela dio Etxabek. “Gero denok dakiguna etorri zen: hartzekodunen lehiaketa, itxiera, hori guztia... Arantza bat geratu zaigu, ikusten genuelako lana bazegoela eta enpresa bideragarria zela. Baina hor dirua xahutu zuten, eta hori epaiketari demostratuta geratu zen”.

CAFen egiten du orain lan Etxabek, baina noizean behin hurreratzen da Oikiara, enpresa zegoen lekura. “Langile ohien WhatsAppeko talde bat mantentzen dugu, eta eraisteen argazkiak partekatzen ditugu. Hara joan izan naizenean beste langile batzuekin egin dut topo bertan. Kristoren tristura sentitzen dut, arantza horrekin gelditu ginen eta. Nik gustura egin nuen han lan...”.

Soinurik ateratzen ez duen afinatutako instrumentua

Nerea Alonso, orkestra administratzailea

Musikak biziarazten du. Saxofoia ikasi zuen bere bizitzako garai batean, baina instrumentua utzi eta Londresera joan zen orain hamar urte Musika Kudeaketa ikastera. Gaur egun, English Chamber Orkestrako administratzailea da.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Musika arnasten du Nerea Alonsok (Zumaia, 1991); maite du musika, eta musikatik eta musikarentzat egiten du lan Londresen, mundu mailako ganbera musikako orkestra garrantzitsuenetako batean, garrantzitsuena ez bada. Hasiera, baina, hasiera ia guztiak bezala, xumeagoa izan zen. Zortzi urterekin saxofoia ikasten hasi zen Zumaiaiko Musika Eskolan. “Gure amak zioen hasieran bateria jo nahi nuela. Amak flauta edo pianoa aukeratzea proposatu zidan, baina asteburu batean Burgosera joan ginen –bertakoa da ama– aitona-amonak eta izeko bisitatzerak, eta han jakin nuen izekok, gaztetan, klarinetea eta saxofoia jotzen zituela. Saxofoia probatu nuen, ikusi nuen soinua ateratzen niola, eta halaxe aukeratu nuen instrumentua. Dena bulkada batean; izan ere, halaxe naiz, oldarkorra”. Izekok bere saxofoi zaharra erregalatu ziola du gogoan Alonsok, baina hobeto jotzen hasi zenean, gurasoek saxo hobea erregalatu ziotela.

Julen Izarra saxofonista eta jazz musikaria izan zuen irakasleetako bat Zumaiaiko Musika Eskolan, eta hark animatuta sartu zen Donostiako Kontserbatorioan, “nahiko ondo jotzen nuela-eta. Hamabi edo hamahiru urte izango nituen, eta nik ez nekien zer zen kontserbatorio bat. Hala ere,

gustua hartu nion eta orduan erabaki nuen saxofoi jotzailea izan nahi nuela”. Ikasketaren zati bat Donostian egin zuen, eta Bilbon eman zion jarraipena. “Karrera aukeratzeko ordua zen, eta gure aitarentzat musika ez zen lanbide bat. Hala, Magisteritza aukeratu nuen, Bilbon. Hala, Zumaiaiko Musika Eskolan izan nuen irakasle batekin, Judit Monasteriorekin, saxofoia ikasten jarraitzeko aukera ere izango nuen”. Magisteritza, baina, ez zuen gogoko. “Praktikak egin ondoren, esan nuen ikasketetara ez nintzela bueltatuko. Gradu profesionala amaitu arte egin nuen Magisteritza”.

Garai hartan Zumaiaiko Musika Bandan ere jotzen zuen saxofoia Alonsok. “Hemeretzi urte nituen arte edo egon nintzen Bandan, baina Bilbora ikastera joan nintzenean huts egiten hasi nintzen; hala ere, azaltzen nintzen noizean behin. 21 urterekin kanpora joan nintzenean utzi nuen Banda, eta faltan sentitzen dut”.

Banda bakarrik ez, instrumentua bera ere utzi zuen Alonsok garai hartan. “19 urte nituen arte saxofoia ikasi nahi nuela nioen, baina kableak gurutzatu zitzaizkidan eta uztea erabaki nuen. Kontserbatorioiko azken urtea gaizki pasatu nuen, estresagatik, presioagatik. Bizitzan zer izan nahi nuen erabaki behar nuen garaia zen, eta denbora askoan ez nuen instrumentuaz ezer jakin nahi



irrimarra



izan". Saxofoiarekin irtenbide profesional handirik ez dagoela dio. "Orkestretan ez duzu jotzen solista moduan ez bada, behintzat. Eta zenbat musika banda profesional daude? Hemen gertukoak Bilbon eta Gasteizen. Eta zenbat plaza ateratzen dira? Irakasle izan zaitezke, baina klase batzuk eman nituen eta argi neukan hori ez zela niretzat. Ez nintzen saxofonista solista bezala ikusten, ezta musikari profesional bezala ere. Beste aukera batzuen bila hasi nintzen, eta musikako kudeatzailearen ikasketak aurkitu nituen".

Denboraldi batean alboratuta eduki ondoren, orain noizean behin saxoa jotzen duela dio, "baina lanaren exijentziarekin ez dut denborarik. Londresen saiatu naiz talderen batean sartzen, baina ez da Euskal Herrian bezala, edozein lagun ongi-etorria dela; taldean mantentzea eskatzen dizute Londresen, eta huts egiten baduzu, kaleratu ergiten zaituzte. Amateurrak dira, baina hemen baino zorrotzagoak".

Orkestraren lan ezkutua

Musikarekin harremana mantendu nahi zuela-eta, Musika Kudeaketa ikastera joan zen Londresera. "Hemen ez zegoen karrera hori ikasteko aukera handirik; Erresuma Batuan eta Ameriketako eskaintzen zuten. Erresuma Batua joan nintzen. Amerika hain urruti ikusten nuen...". London Universityn egin zuen karrera, eta University of Westminsterren masterra. Behin ikasketak amaituta, musikariaren agentzia batean hasi zen lanean. "Orkestretako pertsonal buruek agentzietara deitzen dute musikari bat behar dutenean, eta gure lana musikari hori lortzea

izaten zen". Lan horretan egindako harremanei esker hasi zen Alonso gaur egun 'lantoki' duen English Chamber Orkestrarekin kolaboratzen. "61 urteko historia du orkestra honek eta mundu mailan musika gehien grabatu duen ganberako orkestra da. Solista onenek grabatzen dute orkestra honekin, eta munduan zehar ere bidaiatzen du".

Hasieran freelance moduan kolaboratzen zuela dio, oraindik musikariaren agentzian lan egiten zuen garaian. "Ordu bat sartzen nuen astean, bi ordu... Noizean behin beraiekin bidaiatzen zuen..., baina hor pandemia heldu zen, eta lanik gabe geratu nintzen agentzian. Sei hilabete egon nintzen horrela. Noizean behin orkestraren administratzailearen lan batzuk egiten nituen. Baina, orain urtebete, orkestrak dirulaguntza bat jaso zuen COVIDak eragindako kalteei aurre egiteko,

Nerea Alonso Gonzalez

- **Adina:** 30 urte.
- **Ikasketak:** saxofoiaren gradu profesionala, Music Business Managemente London Unoversityn, eta Events and Conferences Management University of Westminsterren.
- **Lanbidea:** orkestra administratzailea.
- **Orkestra administratzailea izango ez banintz...** saxofonista.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Sozializatu, lagunekin egon eta hitz egin, gehienbat azken urteetan.

eta horri esker hasi nintzen bertan lanean, hasieran hiru egunez, gero lau egunez, eta orain lanaldi osoan”.

Ikusten ez den lana egiten du Alonsok. “Proiektu baterako kontratua sartzen den momentutik dena kudeatzen dut: musikariak lortu; partiturek copyrighta badute, horiek alokatu; baimenak eskatu; solisten kontratazioa kudeatu; entsegu lokala lortu, orkestrak egoitza fisikorik ez duelako... Ekoizpen lana da, gauza pila bat egin behar dira, eta hilabeteetako lana dakar”.

Gaur egun duen lanbidea, administratzailearena, Zumaian hasi zuela gogoratzen du. “Bandan musikariak behar zirenean deika ibiltzen nintzen. Gero, Marixi Sesmarekin, Sapere Aude Sinfonietta sortu genuen, eta hor egiten nituen lan horiek. Hor konturatu nintzen asko gustatzen zitzaidala, eta afizio moduan hasi zena lanbide bihurtu da”.

Pandemia garaian English Chamber Orchestra gelditu samar egon dela dio: “online kontzertuak eman ditugu, eta disko batzuk ere grabatu ditugu, baina jendaurreko kontzerturik ez”. Gauzak aldatzen ari direla dio. “Hasi da lana sartzen hurrengo denboraldirako”. Bulegoa utzi eta orkestrarekin bidaiatzen hasiko da orain, eta



horrek urduri jartzen duela dio. “Azaroan hamabost egunez izango gara Saudi Arabian eta inguruko herrialdeetan. Bitartean Londreseko lana ere egin beharko dut, eta horrek arduratzen nau”.

Gustura dago orkestrako kudeatzaile lanetan, baina ez daki noiz arte segituko duen. “Nik jarraitu nahi dut, baina ea nola doan. Ez dut nire bizitza osoa orkestra batean lanean ikusten, asko nekatzen du-eta. Baina musikarekin zerikusia duen zerbaitetan jarraitu nahi dut... Hori bai, lasaiago”. ■■■




Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutututa aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali urriaren 21a baino lehen.

Saria: TIPITAKIN bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Iraileko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutututa zegoen asmatu behar zen: 13. orrialdean zegoen ezkutututa, eta **Itziar Uranga** bazkidea izan da irabazlea.



MARKETIN DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA       ZERBITZUAK

Ba al duzu gaur etxerako lanik?

ETXERAKO LANAK



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Eskolako martxa hartuta, hasi gara arratsaldeko errutinekin, eta horietako bat eskolako etxerako lanak egitea da familia askotan. Ez dut emango nire iritzia horien inguruan; gaur, behintzat, ez gara sartuko onuragarriak diren edo ez aztertzeraz. Etxerako lanak hor daude, gure ikasle eta seme-alaben egunerokotasunean, ezin ditugu ukatu oraingoz; beraz, horiek etxean kudeatzeko gako batzuk emango dizkizuet, ea lagungarriak zaizkizuen.

Etxerako lanen helburuetako bat autonomia sustatzea da; beraz, kontuan hartu: hasieran, gurasoak seme-alaben atzetik ibiltzeko joera izaten dugu, eta hartu behar ez ditugun ardurak gureganatzen ditugu. Eskolako lanak ez dira gurasoen ardura. Egia da haur batzuek, eta adinaren arabera, hasieran errutinak barneratzeko laguntza pixka bat behar izaten dutela, baina beraien kabuz ikasten utzi behar diegu. Etxerako lanak ez egiteak bere ondorioak ditu, baina ondorio horiek eskolan bizi behar dituzte. Ez da erraza 8, 9 edo 10 urteko haur batek

bere etxerako lanak kudeatzea; horregatik, hori lortzea aurrerapauso handi bat izango da.

Autonomia sustatu egin behar da, baina haurrak behar duenean, laguntza eskatuko du eta guk lagundu egingo diogu. Behar ez duenean ez. Eta gogoratu tresnak eskaintzeaz emaitzak lortu ditzan, ez eman emaitzak zuzenean.

Beraien ondoan egotea ere garrantzitsua da. Aipatu dudanez, bezala, gazteenentzat batez ere, ez da erraza beraien kabuz lanean hastea; horregatik, etxean lan giroa sortzeak lagundu dezake. Guztiak elkarrekin jar gaitezke, eta beraien lanak egiten dituzten bitartean, geuk geureak egin ditzakegu, albisteak irakurri edota gustuko dugun liburu bat hartu eta begiratu.

Motibatu ere egin behar ditugu. Etxerako lanak hor daude, eta ez da gurasoen esku

dagoen gai bat. Horien aurka bagaude eta egunero horien alde txarrez ari bagara gure seme-alabekin, ez diegu gehiegi lagunduko. Saiatu bilatzen horien alde eraikitzailea, eta azaldu motibazioa galtzen duten egunetan.

Interesa erakutsi eskolan egiten dutenaren inguruan. Lantzen ari direna ezagutu eta gai hori etxean ikusgarri egin euskarri ezberdinak erabiliz: pantailak, egunkariak, liburuak...


Eskolarekin komunikazio eta koordinazio mantendu. Familiak gero eta gehiago hartzen dira kontuan eskola testuinguruan. Garrantzitsua da gure seme-alabek eskolan egiten ari diren ibilbidea ezagutzea, eta dituzten zaitasunei aurre egiteko tresnak eskuratzea. Tresna horiek irakasleek badituzte; beraz, behar izanez gero, laguntza eskatu.

Bukatzeko, lanak egiteko espazio, denbora eta egoera egokiak aurkitzen lagundu. Non egin ditzakeen, zer ordu den egokiagoa eta zer behar duen eta zer behar ez duen (arreta jartzea galarazten duten estimuluak) identifikatzen lagundu. ■■■

**GARRANTZITSUA DA
GURE SEME-ALABEK
ESKOLAN EGITEN ARI
DIREN IBILBIDEA
EZAGUTZEA**

Sudokua

Jose Luis Zumeta gure margolari maitatu-
enetako bat da, eta hain zuzen horregatik, bere
deiturarekin osatu beharko duzu sudokua, alegia
Z, U, M, E, T eta A hizkiekin. Gogoratu hizki




bakoitzak behin
agertu behar
duela lerro,
zutabe eta area
bakoitzeko.



Hitz gurutzatua

Idatzi irudi txikien izenak dagokien arkatzean.
Ondoren, lauki nabarmenduetan egokitu diren
hizkiak hartu eta ordenan jarri behean (goitik
beherakoa errespetatuz). Ongi eginez gero,
Zumeta margolariaren sorterrria azalduko zaizu.



Zeeeeer??

Zumetak koadro asko margotu zituen. Beste
margolari oso ezagun baten artelan bat ere izan
zuen gogoan, eta artelan horrek eta gertaerak
inspiratuta, obra bat sortu zuen. Zein zen
margolari ezagun horren artelana? Maripurtzilek
badaki, eta esaten ari zaigu, baina konturatzen ote
da ez diogula putzik ulertzen?

Lasai, ez da-eta larria. Ezaba itzazu B, F, L U, M
eta V guztiak eta hortxe agertuko zaizu.





Hamarrekoa

Aurki itzazu goiko
Zumetaren eta honokoaren
arteko aldeak. Hamar dira
guztira.






Itzala



Bota dadoa!



Zazpi dado hauetatik lau bat datoz irudi zabalduarekin, eta beste hirurak ez. Zeintzuk dira onak? Asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Aise konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.




DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.

Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretegia · asador
José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16




EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



Ertz Informatika
MÁSMÓV.L guuk
Banatzaile ofiziala

Beheko plaza · 943-14 33 95



Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



Garroa

Carlos Cintero - Ainhoa Olazola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70



Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34



ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriñdo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com



IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60

ZUMAIAR

bat gehiago



**BATU BALEIKEREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41



ORRAZTEGI ZUMAI A

943-86 20 83

JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10

tel. 943-05 05 77

KABI Patxeta Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA




Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



kalarri

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR

ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración



Julio Beobide, 2 • ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91



LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652 / 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com



NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Elengabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industriagunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

OSA
BERNIZATUAK

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49




OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxe Mari Korta Industriagunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



Rosi *Garbiketak*

**Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa**

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53




Bat-batean sumendi bat gure bizitzan

Sumendi batek eztanda egin du La Palmako irla ederrean. Kanariar uharteetako historia geologiko harrigarri eta indartsuan azken taupada txiki bat besterik ez da izan, baina nahikoa izan da gure azpiegitura guztiak txikitzeko. Memoria ahula daukagu, baina naturak maiz erakusten digu planeta honetara iritsi berriak garela eta bere aurrean gure “inperioa” oso zaurgarria dela.

Testua: **Asier Hilario Orus.**
Geoparkeko koordinatzaile
zientifikoa.

La Palmako erupzio bolkanikoari testuinguru egokia emateko ondo dago datu batzuei begiratzea. Kanariar artxipelagoa ikuskizun bolkaniko ederra da. Lurraren mantu sakonetik magmak gora egiten du inguru horretan. Afrikako kontinente ertzaren litosfera zulatu eta funditu egiten du eta itsaso azpiko pitzadurak baliatuz, 3.000-4.000 m-ko sakoneran, laba hori zabaltzen hasten da. Kanariar




La Palmako eraikin bolkanikoaren benetako forma eta tamaina. IEO

uharteak icebergak bezalakoak dira. Ikusten dena eraikin bolkanikoaren % 20 inguru besterik ez da. Benetako erraldoia itsaso azpian dago. Horregatik esaten da Teide sumendia munduko sumendirik handienetakoa dela: lurrazalean 3.715 m ditu, baina itsaso azpian bere zimenduak beste horrenbeste dituzte. Guztira, 7.500 m baino gehiago ditu. La Palmako kasuan ere antzeko zerbait gertatzen da. Roque de los Muchachos mendiak duen altuerari (2.426 m) itsaso azpian irlak dituen 3.000 metroak gehitzen badizkiogu, La palmako eraikin bolkanikoak 5.500 metro inguru ditu!

Irla bakoitzaren adina begiratzen badugu, ez da kasualitatea azken pasarte bolkaniko hau La Palman gertatzea. Kanariar uharterik zaharrenak ekialdekoak dira eta berrienak mendebaldekoak. Fuerteventura izan zen azaleratu zen lehen irla, duela 20 milioi urte (Mu); geroago, Lanzarote, 15 Mu; Kanaria Handia, 14 Mu; Tenerife, 12 Mu; eta La Gomera (9 Mu) etorri zen; eta, bukatzeko, azken bi milioi urteetan azaleratu dira La Palma (1,8 Mu) eta El Hierro (1,2 Mu).

Erupzio historikoei erreparatzen badiogu, guztietatik handiena eta ikusgarriena Lanzaroteko Timanfayakoa izan zen. 1730. urtean hasi zen eta 6 urtez egon ziren bertan sortutako sumendiak laba eta piroklastoak botatzen. Irlaren heren bat laba berriarekin estali zen. Suntsipen ikaragarria izan zen hura. Bertako biztanle askok irla utzi



Irla bakoitzeko arroka zaharrenak aztertuta, argi ikus daiteke Kanarietako bolkanismoa mendebalderantz mugitzen dela. GOOGLE EARTH MOLDATUTA



behar izan zuten. Baina, orohar, bolkanismo aktiboa gaur egun mendealdeko bi irlatan kontzentratzen da, nagusiki. Azken 500 urteetan 15 erupzio izan dira Kanariar uharteetab, eta horietatik 7 La Palman izan dira

Timanfaya Parke Nazionaleko kolada eta piroklastoez osaturiko konoak.

LANZAROTE UNESCO GEOPARKEA

LA PALMA ERRALDOIA

La Palma irla bertikala da, ikusgarriak dira irla txiki honetan dauden erliebeak eta maldak. Bere azalerari erreparatuta, munduko hirugarren irlarik altuena da (Azoreseko Pico da altuena). Datu horrek eta irlaren gatzetasunak argi adierazten dute bolkanikoki eremu aktibo batean gaudela.

Geologiari erreparatzen badiogu, baita ere, azken erupzio bolkaniko hau ez da edozein lekutan gertatu. Irlaren hegoaldean dagoen Cumbre Viejako dorsa aktiboan gertatu da, Kanariar uharteetan dagoen guneko bolkaniko aktiboenean, alegia.

Erliebeari eta geologiari erreparatzen badiogu, La Palmako irlan bi eremu garbi bereiz daitezke: Iparraldean, Taburiente eremua; hegoaldean, berriz, Cumbre Vieja eremua.

Taburienteko galdara

Taburiente munduan dagoen galdara bolkaniko ikusgarrienetarikoa bat da. Milioi bat urteetan zehar, 3.000 m baino gehiago zituen sumendi erraldoia eraiki zen, baina bere zimenduak ez omen ziren oso sendoak. Duela 560.000 urte hegoaldean sumendia kolapsatu egin zen eta luizi ikaragarri batek 200 km³ eraman zituen itsaso



La Palma irlaren erliebea eta bi unitate geologiko nagusien kokapena. GOOGLE

EARTH MOLDATUTA



Taburienteko galdara Cumbre Viejako lehen sumendietatik ikusita. ISLAS CANARIAS



hondora. Hori da Taburienteko galdara hego-mendebalderantz irekita egotearen arrazoi nagusia. Luizi horrek utzi zuen zauria gaur egun ondo ikus daiteke Aridaneko bailaran.

Cumbre Vieja dortsal berria

Edonola ere, Taburienteko bolkanismoa luiziarekin batera itzali egin zen, eta azken 400.000 urteetan ez da erupziorik egon irlaren iparraldean. Beroa hegoaldera mugitu zen, eta pitzadura erraldoi batean lerrokatu, sumendi desberdinak agertzen joan ziren eta Cumbre Viejako dortsala sortu zen. Aktibitate bolkaniko horrek 100.000 urte



Sumendien ibilbidea Caldera Vieja dortsalean. ISLAS CANARIAS

KANARIAR UHARTERIK ZAHARRENAK EKIALDEKOAK DIRA ETA BERRIENAK MENDEBALDEKOAK

TABURIENTE MUNDUKO GALDARA BOLKANIKO IKUSGARRIENETARIKO BAT DA

inguru besterik ez du, baina irlaren hegoaldea eratzen duen eraikin bolkaniko berri horrek jadanik 2.000 metroko altuera du. Hemen gertatu dira erupzio historiko guztiak. Bortitzagoak edo txikiagoak, luzeagoak edo motzagoak, batez beste 60 bat egun iraun izan dute, gauean su artifizialak eginez.

Momentuz itxaron besterik ez dago. Bitartean, Ikertzaileek informazio oso baliagarria aterako dute erraldoi honen sustrai beroak hobeto ulertzeko. ■■■

KAIKU



Kaiku

Urola Kostako baserritar familien esnea

Kaiku proiektua abeltzaintza-familiak osatzen dute eta duela 60 urte baino lehenagotik konpromiso sendoa du sektorearekin. Horri esker, abeltzain familiak beren jarduera garatzen jarrai dezakete, maiz ahaztua izan den baina gure gizartearentzat eta hurbileneko inguruarentzat funtsezkoa den sektorean, ekonomia zirkularra eta herrietako lanpostuen garapena sustatuz.

Kaikuko abeltzain-familia horietako bat Zestoako Joxe Ramón eta Garikoitzena familia da.

Ahalik eta baliabide gehien aprobetxatzen zentratu dira buruaskiak izateko eta behiak modu erabat naturalean elikatzeko: fabrika txiki bat jarri dute baserrian, non zerealak ehotzen eta zapaltzen dituzten, Zestoako larreetan lantzen duten bazka osatzeko. "Ongarri naturalarekin lantzen dugu lurra eta bioaniztasuna errespetatzen dugu produktu kimikorik erabili gabe. Gure lan egiteko modua jasangarria da ingurumenarekin eta horretaz harro gaude" dio Garikoitzek.

Joxe Ramón eta Garikoitzena bezalako Kaikuko familia-abeltzainen lanari esker, hurbileko produktua lortzen dugu, Urola Kostan bizi diren familiak ekoiztitakoa: kalitate oneneko eta zapore handiko esnea. QR kode hau eskaneatuz gero, zure inguruan zenbat ganadutegi dauden ikusi eta Kaiku Km0 ekoizpen arduratsuko brik-esne bakoitzaren atzean dauden familiak ezagutu ahalko dituzu.

EZAGUTU



nortzuk garen **KAUKO BASERRITAR FAMILIAK** eta zein **HURBIL** gauden zugandik
IRABAZI URTEBETEKO ESNEA DOAN.

Zatoz guztion sarera

ZOZ zuntz optikoko herri sarea
Zumaia herrigune osora iritsi da.
Jarri harremanetan operadoreekin
eta eskatu informazioa.

 labur.eus/ZOZ

 zoz@guifi.net

 656 511 916

fundació
guifi.net



Zumaia
Udala



ZUMAIKO MERKATARIEN GINKANA

Urriaren 6tik 23ra

erosketak herrian egiteak saria du

150 €-ko 6 erosketa bono

Lortu 4 zigilu eta parte hartu



Udal langileen gorabehera batzuk



TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

Uztaileko Baleikek udaltzainburuarekin elkarrizketa zekarren, eta ez omen zitzaion gustatzen txapero deitzea. Gaztelaniazko esanahiari begiratuta, normala da, baina Zumaiaiko hitz berezia izanik, uste dut gorde eta erabili beharrekoa dela. Nire apunteetan begiratuta, konturatu naiz txaperoez gain, beste udal langileez ere idazteko nahikoa material badagoela.

Duela urte asko, Zumaia askoz ere txikiagoa zenean, apenas zegoen udal langilerik, ia beharrik ere ez zegoelako, baina bi figura ia ezinbestekoak ziren udala administratzeko: idazkaria eta probestua (gaztelaniaz, “preboste”). Idazkariak bermatzen zuen udala behar bezala administratzea eta legedia betetzea; probestuak edo aguazilak, berriz, alkatearen aginduak eta arauak betetzen eta betearazten zituen, eta Zumaian badaukagu etxe bat “Prebostekoa” izenekoa (Mari kalean, 2 zenbakiduna, Parrokiaren atzealdean; Erribera kaletik begiratuta, Inpernupe taberna/elkartearena).

Urteak pasatu eta herria handitu ahala, ordea, udal

egitura ere handitu egin zen, eta zerbitzuak eta lanak bere gain hartzen edo bermatzen zituen neurrian, udalak lanpostu berriak sortzeko edo horiek ziurtatzeko gestioak egiten zituen: zirujaua, medikua, praktikantea, albaitaria, kontu hartzailea, zerga kobratzailea, aguazila, alondegiaren arduraduna, maisua eta maistra, musikariak (txistulariak, danborraria, bandaren zuzendaria, organista, irakaslea...),

barrenderoak, udal eraikinen garbitzaileak, serenoak, herri lanen arduraduna eta langileak, kaleko argien arduraduna... Nahikoa buruhauste izaten zuten baten bat falta zenean ordezkoa aurkitzeko, batez ere osasungintzako lanpostuetan; hizkuntza eskakizunik ez zegoen, baina lanpostuak lortzeko euskaraz jakitea nahitaezkoa zen eta propio eskatzen zuten gehienetan; horrek adierazten du XIX. mendearen amaiera eta XX.



Txaperoa Fielatoko kasetaren aurrean. ZUMAIKO UDALA

mendearen hasiera arte zumaia gehien-gehienek euskaraz baino ez zekitela eta euskara hutsean bizi zirela.

Gerrek eragin handia izaten zuten udal plantillan: zeinek irabazten edo galtzen zuen, soka berekoak sartzen zituzten udal-txean eta bestekoak kendu. Horrela, 1876an, II. Karlistaldiaren ondoren, langile berriak ezarri zituzten: idazkaria, maisua, aguzila, medikua, botikaria..., eta maistrari eskatu zioten herrira bueltatzeko edo lanpostuari uko egiteko; eta 1936ko Gerraren ondorioz, udal egitura txikituta geratu zen: frankistak herrian sartu aurretik alde egin zuten udal idazkariak, albaitariak eta bandaren zuzendariak, besteak beste; geratu zirenetako batzuk, berriz, espedientatu egin zituzten, baita ardurak kendu ere: Damiana Añorgari (Oikiako maistra), Jose Ajuari (medikua)...

Lanpostuei dagokionez, idazkaria da udalaren administrazio egokirako bermea, eta postua lortzeko, ezinbestekoa zen ikasketak edukitzea eta gaztelaniaz idazten ondo jakitea. Alkatearen konfiantzako postua zen, eta ez da harritzekoa aldaketa politikoe-kin gorabeherak edo gatazkak sortzea, batez ere XIX. mendean; horren adibide, 1860-1870eko hamarkadetan, zer kolore politikotakoak ziren agintariak (liberalak edo karlistak), halako idazkariak ezarri nahi izan zituzten:

1869an, idazkaria hautatu behar zutenean, Pedro Etxaniz eskarmentu handiko idazkaria zen, baina karlista sutsua ere bai, eta agintean liberalak zeudenez, nahia-go izan zuten Manuel Zubia menor (gaztea) izendatu; lanean hasi zen Zubia, bai, baina itxuraz ez zeukan behar adinako gaitasunik, zinegotzi batzuen ustez: “carece de capacidad para el desempeño de las obligaciones que señala el artículo 105 como es fácil probar haciéndole sufrir previamente examen sobre cualquiera de ellas. (...) Es bien público que Don Manuel Zubia no tiene tanta capacidad como Don Pedro Echaniz”. Udal paperetan murgilduta, zer gauza ederra den garaian garaiko kontuen berri izatea idazkariaren edo haien laguntzaileen letra txukunari eta garbiari esker, bakoitza bere berezitasunekin: Felix Barturen (1877-1884), Fernando Trueba (1885-1923), Jose Etxabe (1923-1936), Carlos Campos (1937-1961)... Batzuetan gertatzen zen lanpostua hutsik geratzea, eta orduan behin baino gehiagotan aritu ziren idazkari lanetan herriko beste eskolatu batzuk, adibidez, maisua edo medikua.

BEHIN BAINO GEHIAGOTAN AGERI DA TXAPERO GAZTELANIAZKO PAPER OFIZIALETAN

Probestuari dagokionez, udal egitura handitu ahala, haren funtzioetako asko udaltzainek edo guardek berenganatu zituzten. Horiek Zumaian txapero izenarekin dira ezagunak, eta hitzaren jatorriaz idatzi zuen Belen Golmaio 2001ean:

“Nahiz eta behin baino gehiagotan galdetu, inoiz ez det arras-to garbirik atera. Noiz edo noiz entzun det ‘txapa’ bat eramaten zutelako deitzen zitzaiea txapero. Baina ez dakit horrela izango ote den. Beharbada, herritarren batek jakingo du hitz horren nondik norakoa eta horrela izanez gero, adieraziko digu”

Behin baino gehiagotan ageri da txapero gaztelaniazko paper ofizialetan; adibidez, 1938an, gaur egungo Fielato ingurua dela eta, “que formando un triángulo uno de sus vértices vá á terminar en la caseta de chaperos allí instalada”; 1941ean, “Una factura del vecino de esta villa Leoncio Múgica por varios materiales para la caseta de chaperos construida recientemente que importa Ptas. 41’30”... Txaperoen lana eta presentzia ugaritu egin ziren XIX. mendearen amaieran, batez ere Udalak kontrolatu nahi izan zituenean salgaiak (jatekoak eta edatekoak, batik bat), zergak kobratu eta diru gehiago lortu ahal izateko. Harrigarria da udaltzainek zenbateko arreta jartzen zuten legez kanpoko ardo, pattar, olio, haragi eta abar harrapatzeko, he-



Badatoz herriko agintariak Moilan aurrera, udal txistulariek lagunduta . ZUMAIAKO UDALA

rrigunean ez ezik, inguruko auzoetan eta bideetan ere bai. Zergatik hainbesteko grina? Udalak isuna jartzen zien arau hausleei: harrapatutako generoari zegokion zerga halako sei kobratzen zien; baina generoa ez zien itzultzen jabeei, baizik eta txaperoarentzat geratzen zen: 1901ean, “[harrapatutakoa] sea para el que haga o hayan verificado o contribuido al menos a la aprensión y no para repartir entre todos los agentes municipales como se ha venido haciendo hasta la fecha”; baina bestelakoen atzetik ere ibiltzen ziren txaperoak: 1901ean, “acuer-

dan que por los agentes municipales sean perseguidos los perros que no hayan satisfecho la contribución y muertos (los) que vagamundos que acuden a esta población por las noches y que al efecto se traigan pasteles o morcillas”. Txaperoak uniformea jantzita ibiltzen ziren, eta bestelako

SERENOEK TXAPEROEN ANTZEKO LANAK EGITEN ZITUZTEN, BAINA GAUEZ, ETA ASPALDITIK ZEUDEN GUREAN

ekipamendua ere bazuten: 1898an Udalak arma lizentziak eskatu zituen haientzat, baita errebolberrak enkargatu ere Eibarren; 1934an, berriz, egunez aritzen ziren guardei armak kentzeko erabakia hartu zuen Udalak; eta 1936an, atzera armak eman zizkieten. Udal dokumentazioan bada bitxikeria ugari, batez ere txaperoek lanak behar bezala ez zituztelako egiten edo zegozkien lanez gain, beste batzuk ere egiten zituztelako: 1896an, “De un escrito de Manuel Aizpurua vecino de esta villa denunciando el hecho de que el guarda municipal Don

Antonio Uranga se dedica a veces a la pesca de pulpos y otros que haceres que no son propios de un guarda”; 1900ean, “el guarda municipal Don Julián Echániz había sido multado con cinco pesetas por haber dejado de prestar servicio en dos noches, sin dar conocimiento a su principal Cabo Sr. Arano”; hemen berriz ere protagonista berberak, 1902an: “el guarda municipal Don Julián Echaniz se ha ocupado el Domingo último en acarrear se la male-

ta de un caballero particular dejando abandonado su puesto en la caseta de la Estación y que aunque fue reconvenido por la mañana por este proceder; volvió a las andadas por la tarde”; 1947an, udal ordezkariak lanpostutik kendu egin zuten udaltzain bat, Manuel Fajardo Valencia:

“(…) estando de vigilancia en la tarde del pasado 24 de Diciembre, de una de la tarde a nueve horas de la noche, abandonó el

servicio y estuvo en varios establecimientos de bebidas en compañía de su padre. El 1º de este mes no se presentó a la hora del relevo del servicio y luego se fue con el uniforme al Bar Mari y más tarde al Bar El Ciervo, no presentándose a la hora del relevo. En los días 5 y 6 de del presente mes y estando de servicio por la tarde en el Fielato, abandonó el servicio y se fue de paseo con una chica, presentándose a la hora del relevo”

Lanpostutik kentzeko, arrazoik horiek ez ezik, beste batzuk ere aintzat hartu zituzten: “la aureola de impopularidad que tanto por su proceder como por el de su padre que es Brigada de la Guardia Civil de esta Villa”, eta aurretik izandako beste gertakari tamalgarri batzuk ere bai.

Baina bestelako udal langile batzuekin ere baziren gorabeherak, eta hara zer idatzi zuen udal obretako buruak, barrendero bat zela eta:

“(…) se le ha llamado la atención varias veces por el que suscribe en el tiempo que viene desempeñando dicho cargo por no atender como es debido su obligación de limpiar las calles y sobre todo por no prestar los servicios en la mayoría de las tardes, dedicándose en las horas de servicio a las construcciones de jergones, cortar leña y demás servicios”



Zakar biltzailea karroarekin Erribera kalean. ZUMAIA OROITUZ

Itxuraz, garbitzaileak nahikoa barneratuta zeukan lanaldi jarraitua goizean egitearen kontzeptua...

Azken bitxikeria: 1943an Mariano Goikoetxea udaltzainak erretiroa hartzea eskatu zuen; 70 urte zeuzkan...

Serenok txaperoen antzeko lanak egiten zituzten, baina gauez, eta aspalditik zeuden gurean. Badakigu 1866an diru kopuru bat gorde zuela Udalak sereno postuak sortzeko,

lapurreta asko zeudelako eta haiek ebitatzeko; 1872an ere serenoen bi lanpostu sortu zituen, lau lagunek eman zuten izena, eta Udalak adierazi zien beraien artean moldatzeko, nahi zuten bezala. 1932an, berriz, bakarra zegoen, eta motz geratzen zen: "(...) se está registrado frecuente y bastante abundante paso de transeúntes y de gente maleante durante las altas horas de la noche, y constituye un verdadero peligro el que no exista más que un

sereno para el servicio de vigilancia nocturna"; horregatik, laguntzailea jarri zioten. 1990era arte ezagutu genituen gaueko zaintzaileak Zumaian, batzuetan Kalixto txakurrak lagunduta, gainera.

Gaur egun (2021eko irailean), 60 lagun inguru daude udal plantillan, eta erdia baino gehiago emakumeak dira. Apenas langilerik zegoen garaitik abiatuta, gauzak dezente aldatu dira, ezta? ■



EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA

Barruan daramazu kirol zaletasuna, onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa. Eta barruan daramazu euskara ere, kirola barrutik bizitzeko.



PUBLIZITATEA



SOLOZABAI
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritizitatea - Naturopatia

www.sura.eus

Sura
ZAINITZA
OINARRIAN

Patxita Etxezarreta 17 • 688 71 85 38



Talaraia
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Trapaia
taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



TTAKUN Izustarri, 3
tel. 943-86 52 81

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondeak (kodilloa)
Saltxitak, oilaskoak...
Garagardoak-aurkeran

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 575 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etcheberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 • 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xantia
ALTEARAK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

yoana
ileapaindegia



Amaia plaza,
2 beheko
943-14 32 78

Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Urtza Plaza 3 • 943-86 23 81 ZUMAIA

ZUMAIA
AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com



AA **ASESORIA ARIN**

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 beheko • ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 • asesoriarin@asesoriarin.com

BALEIKE.eus

Jarri zure
iragarkia
BALEIKEn
943-86 15 45

AGENDA

ERAKUSKETAK

URRIAK 1-17

Garbiñe Arrieta + Iñaki Oreja.
Mugimendua eta kementa.

URRIAK 14-24

Argazki erakusketa: CIMASUB2021
itsaspeko zinema.
Algorri Interpretazio Zentroan .

URRIAK 21 - AZAROAK 21

HARRIAK.

URRIA

1 OSTIRALA

Antzerkia: Losers, Txalo konpainia.
Aita Marin, 20:00etan.



7 OSTEGUNA

Zine forum: Retfærdighedens ryttere
(Jinetes de la justicia, JBA).
Aita Marin, 19:00etan.

8 OSTIRALA

Bertso saioa: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Aitor Mendiluze, Nerea Ibarzabal eta Amets Arzallus.
Gaiak jartzen: Unai Manterola.
Zumaianan, 20:00etan.

14 OSTEGUNA

Hitzaldia: Emakume migratzaileak
transitoan: hego muga, Bidasoa, eta haratago.
Emakumeon etxean, 18:30ean.*

Zinema: CIMASUB2021 itsaspeko
zinemaren nazioarteko zikloa.
Aita Marin, 19:00etan.

15 OSTIRALA

Ipuin kontaketak Aniztasunetik.
Haur liburutegian, 17:30ean.

21 OSTEGUNA

Zine forum: Zárójelentés (El médico de Budapest, JBA).
Aita Marin, 19:00etan.

22 OSTIRALA

Ipuin kontaketak Aniztasunetik.
Haur liburutegian, 17:30ean.

Antzerkia: Antigone edo ezetzaren beharra, Horman poster.
Aita Marin, 20:00etan

23 LARUNBATA

Gazteguneak antolatuta **Irteera:** Iruña Salting, (2005-2009 urteetan jaiotakoak).

24 IGANDEA

Antzerkia haurrentzat: Hodei magoa.
Aita Marin, 12:00etan.

28 OSTEGUNA

Dokumentala: Symbiotic earth, how Lynn Margulis rocked the boat. Lynn Margulisi buruzko dokumentala.
Aita Marin, 19:00etan.

29 OSTIRALA

Ipuin kontaketak Aniztasunetik.
Haur liburutegian, 17:30ean.

AZAROAK

4 OSTEGUNA

Zine forum: Quo Vadis, Aida? (JBA).
Zuz.: Jasmila Zbanic.
Aita Marin, 19:00etan..

5 OSTIRALA

Antzerkia: Agurra, Vidania teatro.
Aita Marin, 20:00etan.



14 OSTIRALA

Kontzertua: Musika Banda.
Zumaianan, 18:00etan.

Glaziar bat bihotzean



Nirliit

Egilea: Juliana Léveillé-Trudel

Argitaratzailea: Txalaparta

Argitaratze urtea: 2021

Orrialdeak: 211

Generoa: Narrazioa



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Ohiko eztabaida da bizi ez duzun zapalkuntzari buruz hitz egin ote dezakezun, leku pribilegiatu batean egonda. Alegia, gizonezkoek emakumeen zapalkuntzaz hitz egin dezakete? Heterosexualek gayei eta lesbianeiei buruzkoaz? Zuriak arrazializatuei buruzkoaz? Zalantzarik ez dago diskriminazioa eta bazterketa jasan dutenei entzutea dela aberasgarriena, baina egin beharreko lana ere bada bakoitzak bizi duen botere kokapenari kritiko begiratzea. Hori egiten du Juliana Leveillé-Trudel idazleak. Honela dio narratzaileak pasarte batean: “Errudun sentitzen naiz neure herrialde aberatsagatik, neure familia batuagatik, neure heziketagatik. Sua itzaltzeko premia sentitzen dut, mundu ustel honetan zerbait egiteko”.

Lehen eleberria du *Nirliit*; 2015ean argitaratua, orain gutxi Aiora Jakak euskarara itzulua. Izenburuak “antzara” esan nahi du inuiten hizkuntzan, eta metafora bat da; protagonista, narratzailea, udan iparraldera, Salluitera, joaten da, eta neguan

hegoaldera, Quebecera, bere herrira. Esperientzia pertsonaletik abiatuta idazten du, baina ez da eleberri autobiografikoa. Idazle kanadarrak inuit komunitateari mendebaldeko bizimodua inposatzean sortu zaizkion talkak eta zorigaitzak: alkoholismoa, suizidioak, eskola porrota, emakumeen aurkako biolentzia... kontatzen ditu, baita jendearen abegikortasuna, arbasoen kultura bizia eta naturaren edertasuna ere.

Protagonistak ez du bere lagun Eva aurkitu. Erail eta desagerrarazi egin dute. Nobelan, protagonistak Evari eta Evaren semeari, Elijahri, hitz egiten die, eta bakarrik bidez inuit herriaren erradiografia egiten du. Evaren absentiak gidatzen

du liburu osoa; hari idazten dio narratzaileak nola aurkitu duen herria, zer eragin duen hegoaldeko zurien presentziak biztanleengan... Liburuaren erdialdetik aurrera Evaren seme Elijahrengan ardazten da kontakizuna, eta, beraz, fiordoaren hondoan hondoratutako amari azaltzen dizkio narratzaileak bere semearen oinaze eta poz txikiak, aitatasun gaztea eta jelsiaren bihotz minak.

Estilo gordina du idazleak, eleberria txirikordatzaren duten istorioak bezain gardena. Batetik, narratiba lirikoa darabil, bereziki naturak latitude horretan hartzen duen indarra miresmenez deskribatzen du; bestetik, narratzailearen lehen pertsona baliatuta, ahozkotik gertu geratzen den hizkera erabiltzen du kanadar zurien eta inuiten arteko botere harremanak ahobizarrik gabe azaleratzeko. Interesgarria da nola ekartzen dituen argitara Quebecetik inuitak deskubritzera (eta zenbaitetan salbatzera) doanaren aurreiritziak, epaiak eta kontraesanak. ■

**ESPERIENTZIA
PERTSONALETIK
ABIATUTA IDAZTEN DU,
BAINA EZ DA ELEBERRI
AUTOBIOGRAFIKOA**

Etxean jokatzeko nuen



IOSU MANZISIDOR SALSAMENDI

Bertakoak garenok abantaila txiki bat badugu kanpotik datozenen aurrean: Zumaia ezagutzen dugu, gure lekutxo da. Futbolariak dioten bezala, “etxean jokatzeko dugu”. Badakigu nola iritsi Itzurunera edo Algorrira bidean galdu gabe; non aparkatu TAOrik ordaindu gabe; zein taberna dagoen itxita asteazkenetan; zer ordutan dagoen marea goian eta zer ordutan dagoen behean. Erraz jakin dezakegu noiz aterako duten ibaira itsasontzia astilleroetakoek, eta non lortu Chill Mafia entzuteko kontzerturako sarrerak. Eta horrek ematen du halako harrotasun puntu bat.

Inguruko errepedietan bizikletan ibiltzen garen bertako txirrindulariok ere badugu abantaila bat. Hasteko, ezagutzen ditugu bideak, zer egoeretan dauden. Zenbaitek buruz jakingo du non dauden zuloak eta non errepedia altxatzen duten sustraiak. Noiz datozen bihurgune itxiak. Edo gure bizikleta arinekin igo behar dugun aldapa motza eta pikoa den, ala luzeagoa eta etzana. “Etxean jokatzeko dugu”.

Zeharkako begiratu batean asmatuko dugu zer txirrindulari talde den KM 0koa eta zer talde datorren Donostia aldetik, 40 edo 50eko pelotoiak osatuz, Frantziako Tourreko etapan baleude bezala.

Aspalditik ohartuta nago bertako auto gidariak ere ohituago daudela txirrindulari artean gidatzen, eta ez direla besteak bezain urduri jartzen bi maillot koloretsu eta garesti ikusi orduko.

Orain bi aste inguru, errepediera irten nintzen kilometro batzuk egitera. Ez garai batean bezala 120 edo 200 kilometro; orain gutxiago eginda ere gustura geratzen naiz. Ez dut auto gidariak amorrarazteko asmorik izaten eta askotan nahiago dut tropel handietan ibili ordeztu bakarrik joan eta ahal bada mendi aldeko errepede estuak hartu, auto eta

semaforo gutxiago dauden bideetara. Haietan gustura ibiltzen naiz, presarik gabe. Banindoa ia buruz ezagutzen ditudan bihurgune itxi, zulo eta sustrai artean aldapa gora bizikletan, eta igoera erdian-edo mila trumoiaren hotsa ateraz 400, 500 edo 600 zaldi izango zituen Ferrari, Lamborghini edo Porsche bat sumatu nuen atzean. Ez dakit nora joateko, baina presa izango zuen, nonbait, eta askotan saiatu zen ni aurreratzen. Ezin, ordea. Beti ikusten zuen gidariak bihurgune estu, zulo edo adarren bat errepedean. Ia kilometro oso bat egin zuen nire atzetik Ferrari, Lamborghini edo Porsche hark. 200 edo 300 km/h egin ditzakeen makina 10 km/h-an. Saiatu nintzen azkarrago joaten, baina ez naiz igotzaile onegia. Behin aukera ikusi zuenean, mila trumoiaren hotsa atereaz aurreratu ninduen, ez dakit nora joateko. Uste dut kilometro hura luze egin zitzaiola gidari hari. Niri baino luzeago ziur. Ez dut esango harro nagoenik gidari hari azkarrago joaten ez uzteaz, baina nik “etxean jokatzeko nuen”.

**EZ DAKIT NORA
JOATEKO, BAINA
PRESA IZANGO ZUEN
ETA ASKOTAN SAIATU
ZEN NI AURRERATZEN**

Ilarak



JUAN LUIS ROMATET

Ez ditut ilarak gogoko. Ez dut inor ezagutzen ilaran jartzea gogoko duenik, nahiz eta munduan gauden 7.000 milioi pasa lagunaren artean zaletasun hori izango duen norbait egongo den. Jende arraroa nonahi dago, eta izango da, nola ez, afizio hori duenik.

Ordu jakin batzuetan joaten naiz erosketetara, pentsatuaz, esperoan, jende gutxi egongo dela eta hala ez dudala zain egon beharko erositako produktuak ordaintzeko. Askotan asmatzen dut orduarekin, batzuetan ez, eta hor tokatzen zait ilaran egotea.

Era berean, ez dut gogoko semaforoetan zain egotea, nahiz eta gizalegeak aginduta, aurrean edo aldamenen umeren bat badut, zain egoten naizen. Baina, beti baina bat, Axular ibiltokian eta Etxezarreta kalean auto bat bera ere ikusten ez dugunean, onartuko didazue denok izaten dugula errepidea zeharkatzeko gogo, aurrean ume bat, bi edo katekesiko talde osoa izanda ere.

Eta gorroto izan dut, nola gainera, Zinemaldiko emanaldietara sartzeko ilara egin beharra. Fobia asko ditut, gehiegi, baita bete beharreko ohitura batzuk ere. Eta horien artean filmak baldintza “onetan” ikustea da: aretoko erdi aldean, aurre samarrean, eserita egon behar dut; pantailak irentsi behar nau film batez behar bezala gozatu ahal izateko. “Inmersión en la pecera” abesten zuen Derribos Arias taldeak; nire kasuan, zinean murgiltzea, urperatzea da desioa. Horretarako, eserleku on bat lortzeko, eta Zinemaldiak numeratutako eserlekurik eskaintzen ez zuenez, ilaran jarri behar izaten genuen bai ala bai. Askotan ordubete baino gehiago egoten ginen zain. Zinera norbaitekin joanda kafea hartzera joateko aukera zegoen; baina bakarrik zaudenean egonaldia jasanezina bihur zitekeen. Gaztea zarenean, beno, baina adinean aurrera joanda, ilarako Jose Luisen eta Mari Carmenen [asmatutako izenak] konbertsazioak entzuteko gogo handirik ez nuen.

Baina, halako batean, birus nimiño bat heldu zen Wuhanetik (zenbatetan idatzi ote dut esaldi hau), eta, zorionez, Zinemaldiaren politikan aldaketak ekarri zituen. Osasun neurriak gordetzeko, zinemazaleen multzo handiak ekiditeko, distantziak mantentzeko, numeratutako eserlekuak eskaintzen hasi ziren iaz, eta aurten ere mantendu dute. Alde txarra: ezin duzu nahi duzun eserlekua aukeratu, sistemak ematen dizuna onartu behar duzu. Alde ona: ez dago ilararik egin beharrik. Ona eta txarra pisuan jarrita, ilarak ez egiteak irabazten du.

Baina normaltasun batera itzulita, heltzen bagara, mantenduko ote du Zinemaldiak numeratutako eserlekuak eskaintzeko politika? Edo Jose Luisen eta Mari Carmenen konbertsazioak entzuten jarraitu beharko dugu. Erantzuna, datorren urtean. ■■■

**JENDE ARRAROA
NONAHI DAGO, ETA
IZANGO DA, NOLA EZ,
AFIZIO HORI
DUENIK**



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



Casa BASUSTA

LORATEGIA



*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Aileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etkez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18
943-86 26 11

www.floristeriabasusta.com

**JASANGARRITASUNAREN BALIOETAN
OINARRITUTAKO
NATURAGUNE BERRIA.
HEZKUNTZA BERRIKUNTZARAKO ETA
GIZARTE ERAGILEENTZAKO TOPALEKUA**



zumaiena

HERRI ONURARAKO ERAKUNDEA